

Ziri eboa

✧ Mara



Ziri eba

✧ Mara










Egilea: Ramon Etxebarria
Marrazkiak: Jesse



IBAIZABAL

✧ Aurkibidea ✧

| | |
|--|----|
| Irakurgaiak | 5 |
| 🌀 Berriro ere ikastetxera. Lehenengo eguna | 5 |
| Hitz jokoak | 11 |
| Asmakizunak | 12 |
| 🕒 Gau txarra, asteburu ona | 13 |
| <i>Ikusi nuenean</i> , abestia | 18 |
| ✧ Zorra ordaindu | 19 |
| 👉 Trena omen zen | 24 |
| 🌀 <i>Sagar erdia</i> , antzerki saioa | 29 |
| 🕒 Kismi eta Olentzero | 33 |
| ✧ Ohitura zaharrak | 37 |
| Urte berri egunekoa | 38 |
| Errege egunekoa | 38 |


| | | |
|---|--|-----------|
|  | Merkealdiak | 40 |
| | Jantzimerke, iragarkia | 40 |
|  | Mararen mendekua | 42 |
| | <i>Hiru alaba hitz-totelak, ipuina</i> | 45 |
|  | Fitxa betetzen | 47 |
|  | Irakaslearen urtebetetzea | 50 |
|  | Egun bat zoon | 54 |
| | <i>Txakurra eta otsoa, ipuina</i> | 55 |
|  | Matematikika poesia bihurtu | 59 |
|  | Ikasturteari agurra | 64 |
| | Ikasturte amaierarako programa | 64 |
| | <i>San Juan bagilean, abestia</i> | 66 |
| | Liburuaren inguruko gogoeta | 69 |



Berriro ere ikastetxera. Lehenengo eguna

Oporrak ederki pasa ondoren, eskolara joateko irrikatzen zegoen Joseba. Han ikusiko zituen Lorea, Iker eta beste lagunak. Gauean ametsetan aritu zen: zortzi urte zeuzkan eta orain mutil handia sentitzen zen. Hirugarren mailan hasiko zen ikasturte berrian, eta ederki pasatuko zuen bere lagunekin, batez ere Lorearekin. Lorea desberdina zen, jatorra, irudimen handikoa, matematikarako dohain berezia zeukana, alaia, eta batzuetan jenio txarrekoa ere bai. Baina hau oso gutxitan, horretarako arrazoiren bat zeukanean bakarrik.

Aita goizean goiz joaten zen lanera eta amak lagunduko zion gosaria eta eskolarako motxila prestatzen. Bere arreba txikia, Ireide, bost urtekoen gelan hasiko zen aurten.






Lorea ere pozik zegoen eskolan hasteko. Oporretan zortzi urte bete zituen eta orain neska helduagoa zela uste zuen. Irakurtzen eta idazten ederki ikasi zuen aurreko ikasturtean eta aurten gurasoek esan zioten liburu batzuk irakurtzen hasi beharko zuela. Oihanek, bere ahizpak, hamar urte zeuzkan eta asko irakurtzen zuen. Berak zioenez, historia politak ageri ziren liburuetan eta batzuetan Loreari ere kontatzen zizkion hango abenturak, hango istorio triste eta ilunak edo hango gertaera barregarri eta harrigarriak.

Amak banku batean egiten zuen lan eta zenbakiak erakutsi zizkion Loreari, pezetak eurotan nola bihurtzen ziren, dolarrak zenbat balio zuen eta abar... Horrexegatik zen hain ona matematikan.

Eskolan hasi behar zuen gauean ametsetan aritu zen Lorea ere. Joseba ikusten zuen beti bera defenditzeko prest. Inork ezer txarrik egin nahi bazion berari, han azalduko zen Joseba, hori gerta ez zedin. Baina, inoiz, hark ere egin izan zizkion broma bihurriren batzuk. Baina, hala ere, asko estimatzen zuen mutila.





Astelehen goiz hartako zortzietan bukatu ziren ume hauen ametsak.

Ordu horretan jaiki, aharrausi batzuk egin, nagiak atera, gosaldtu, aurpegia garbitu eta prest zegoen Joseba geltokira joateko. Etxetik irten eta Loreari deitu zion. Auzoan bizi zen neskatila. Dotore jantzita zetorren, goitik behe-raino: niki gorrixka, ia orkatilarainoko praka beixak, zapatila zuriak... Udan eguzkitan egon eta gero aurpegiko eta kopetako oreztak nabarmendu egin zitzaizkion. Bere begi urdinak oporrak hasi baino distiratsuago zeuden.

Loreak eta Josebak iaz ere ikasgela berean ikasi zuten. Aurten maila bat gorago daude eta pozik doaz geltokirantz iazko lagunak agurtzeko irrikan. Eurak baino lehenago heldu diren iazko lagun batzuk aurkitu dituzte geltokian; beste batzuk, ordea, ez dituzte ezagutu ere egin, gaur doaz lehenengoz ikastetxera-eta.



Lehenengo eguna denez, aurpegi luzeak eta malkoren bat ere ikusi dute ikasle berrien artean. Euren amen gonari ondo itsatsita daude. Ez ditu haize gogorrak eramango, ez. Ikasle berriek zaharrei begiratzen diete; begiak luze-luze eta zabal-zabal eginda.

Ikastetxera heldu ondoren, ikasle zaharrek bazekiten zein ikasgelatara joan behar zuten eta zuzen eta arin joan ziren, lagun zirenak elkarren ondoan jesartzeko. Hasi berriak jolaslekuan geratu ziren. Lehenengo egunean ez zegoen ikasgairik. Gaia, jakina, lagunen arteko agurrak egin eta gero, oporrak, oporrak eta oporrak ziren. Denek zeukaten zer kontatu. Taldeka elkartu ziren, mahaiak ere halaxe jarritz. Apur bat geroago, lasaitu ondoren, hasi zen irakaslea liburu berriak... eta horrelako gauzak aipatzen. Mahaiak berriro ere binaka jarri eta seriotasuna nabarmen egin zen.

Joseba Lorearen atzeko mahaiari zegoen jesarrita eta irakasleak ikasturteko liburuen berri ematen zuen bitartean, Josebaren ezkerrean jesarrita zegoenak, Ikerrek, kutxa batean zeuzkan klipak elkarri lotu eta katetxo bat egin zuen. Gero, katearen mutur bateko lehenengo klipa, amu antzeko bat eginez, Loreari praktetan itsatsi zion, gerrian, eta beste muturra atzeko mahaiari, hankan. Lorea ez zen konturatu, jakina.






Josebak dena ikusi zuen, baina isilik geratu zen. Prest zegoen inoren kontura barre egiteko.

Irakasleak, ongi etorria eta oharrak ematen bukatu ondoren, bere mahai ondoan zeuden kaxak ireki nahi izan zituen, ikasturtean erabiliko zituzten liburuak zeuden barruan-eta. Kaxak ezin izan zituen ireki eta labana edo antzeko zerbait eskatu zuen. Ikerrek eskulanetako artaziak atera eta Loreari eman zizkion irakasleari eramateko. Lorea zutitu zenean, prakek gerrian behera egin zioten, ez asko, baina, bere atzean zeuden guztiak barre algaraka hasteko beste bai.

Baina ez zen hor bukatu historia. Lorea atzera jiratu zen eta bere esku zabala Josebaren aurpegian markatuta utzi zuen. Josebari aurpegiaren alde bata gorri-gorri jarri zitzaion hartu zuen ezustekoa zela-eta, eta beste alde, ordea, Loreak eman zion zapladakoa zela-eta. Luzaro eduki zituen Lorearen atzamarrak aurpegian markatuta.





—Ikasturtea hasi baino ez dugu egin eta hasi gara ziri-mara —esan zuen irakasleak haserre.

Loreari ez zitzaion gustatu Josebak egindakoa ezta irakasleak esandakoa ere, berak ez zuen ezer egin-eta. Eta isilka-misilka zera esan zuen:

—Iazko irakaslea dirudi, hura ere onean «On Fermin» zen, eta txarrean «Pipermin».

Ikerrek entzun egin zion eta zera esan zion:

—Lorea, zeu ere isilik zaudenean zara hobea.


Bazegoen ikasleen artean bat kizkazalea, lagunei ezizenak jartzen trebea eta buru azkarrekoa zena. Mutil honen ezizena, Kizka zen, eta andereñoari «ziri-mara» entzun bezain

laster, Josebaren eta Lorearen bataioa gertatzen hasi zen jolas-ordurako.

Andereñoaren hitz haiek harrian grabatuta legez geratu ziren ikasleen buruetan eta harrezkero ez zen Joseba eta Lorea izenik entzun ikastetxe hartan Ziri eta Mara baizik.

Ziri Joseba, Mara Lorea, hauxe izango da aurrerantzean gure bikote paregabea.

Hauen antzeko esaerak eta hitz-jokoak tartekatuko ditugu hemen, hitzak eta izenak erabiliz, hauekin jolastu ere egin daitekeela jakin dezazuen.





Baina joko hauek joko izan behar dute eta inoiz ez dira burla egiteko erabiliko. Burla edo iseka egitea mingarria da eta ez zaigu inori gustuko egiten halakorik entzun behar izatea.

Hau pareta, karakola eta bareta!
Ziri Joseba eta Mara Lorea!

Jose mose gitarra
ahuntzak ainako bizarra,
botako luke, botako luke
Frantziarainoko puzkerra.
Prarra, prarra, prarra!

Pedro lero kandelero
sopak jan eta putza bero.

Patxiko tantanero
txerria soroan,
ateratzen ez baduzu,
makila lepoan.





Asmakizunak

Asmakizunetarako azkarra izatea, hitz bat entzun eta errima eta guzti bertso labur bat asmatzea, hitz bati esanahi bat baino gehiago aurkitzea edo bigarren esanahi bat eranstea buru argi eta azkarraren seinale da.

Eta halaxe dira Joseba eta Lorea, buru azkarreko ikasleak.
Asmakizun hauek jarri zizkien Zirik lagunei:

Zer da zenbat eta handiago izan orduan eta gutxiago ikusten dena?



*Basoan jaio, basoan hazi,
herrira etorri eta agintzen hasi.
Zer da?*

Marak, berriz, matematikarako bere dohaina erakutsi zuen:

*Bare batek 20 metroko horma igo behar du.
Egunez 5 metro egiten ditu horman gora
eta gauetz lau, behera. Zenbat egun
beharko ditu goraino heltzen?*





Gau txarra, asteburu ona

Ikasturtea aurrera zihoan. Ziri eta Mara, eta euren taldekoak aterpetxe batera joango ziren asteburu pasatzera. Irakasleak orri bat jarri zuen horman eta joan nahi zuenak bere izena eman behar zuen. Ziri zalantzan zegoen, baina Mararen izena ikusi zuenean, bere izena ere jarri egin zuen. Amaren baimena bazeukan, baina aitarena ez zegoen hain argi. Gainera, osteguna zen. Ziri oso urduri joan zen ohera. Gau osoa ametsetan eman zuen, amesgaiztotan, hobeto esanda.

Autobusean zihoazen kantu, txiste eta abestien artean. Aterpetxera heldu ondoren, autobusetik jaistean, bera erori egin zen. Sudurretik odola zeriola zegoen. Anbulantzia sartu zuten eta ospitalerantz abiatu ziren.

Halako batean anbulantzia Marak gidatzen zuela konturatu zen. «Baina, Marak ez dauka karnetik eta! Bazterra joko dugu!», pentsatu zuen bere barrurako.

—E! Mara! Neu naiz, Ziri! Zuk ez dakizu gidatzen! —oihu egin zion Marari. Baina Marak ez zion erantzun.






Geroago, anbulantzia bide erdian gelditu zen, eta ikasgelako ikaskideek zera-
maten anbulantzia indarka. Halakorik!

Ziri hantxe zegoen, etzanda, ingurukoei zer sentitzen zuen deiadarka, baina
inork ez zion jaramonik egiten. Halako batean, atzeko atea ireki egin zen.
Eta irakaslea ikusi zuen, aurpegia luze-luze, ahoa zabal-zabalik eta eskuetan
artaziak zituela.

Zirik artaziak ezagutu egin zituen: lehenengo egunean Ikerrek kaxak ireki-
tzeko irakasleari utzi zizkionak ziren, eskulanetarako erabiltzen zituenak.

—Igande goizean ikastetxera etorriko zara, alferkeria besterik ez duzu eta!
Mila ariketa egin beharko dituzu, mila esaldi idatzi, mila biderketa, mila
zatiketa egin, mila hutsune bete, mila ...keta, mila ...keta, mila..., keta-keta-
-keta...! —zioen irakasleak.

Gero eta urrunago entzuten zuen irakaslearen ahotsa. Bat-batean, sirena-
-hotsa entzun zuen.





Etzanda zegoen ohetxotik burua jaso eta, Mara ikusi zuen jolastokian jausten. Zauri bat egin zuen belaunburuan eta zornatu egin zitzaion eta har txikiak kontrolik gabe ugaritzen hasi ziren zaurian.

Eltxarra Mararen gorputzeko atalak eraso eta eraso zebilen. Odoleko leukozitoek eta fagozitoek ahal zuten guztia egin arren, ez zen nahikoa.

Alde batetik leukozitoak eta fagozitoak eta, bestetik, eltxarrak. Gerra gogorra sortu zuten.

Garunetara ere nolako edo halako berriak heltzen ziren, baina oraindik ez zion inork arreta handirik jarri. Bihotzak gero eta taupada handiagoak eta bizkorragoak ematen zituen. Birikek oxigenoa ematen zieten leukozitoei bizirik irauteko eta gorputzean zehar zabaltzeko, baina ez zen nahikoa. Hango kutsadurak, zikinkeriak ez zuen neuririk. Hilak edonon... Laguntza behar eta ezin deitu kanpora, zentraleko ordenadoreak eta telefonoak ez zebiltzan.

Zirik dena ikusten zuen. Deiadarka ziharduen, baina ez zioten jaramonik egiten. Bere inguruan zeuden guztiak begira zeuden, baina ez zuten ezer egiten. Batzuek, gainera, barre egiten zuten. Osagileak ere bazeuden, baina txistek kontatzen, abesten, Marari adarra jotzen...





—Zer Mara? Ziri gogoko duzu, ezta? Zer egin diozu ikastetxean? Ala, berak egin dizu zeuri?

Ziri txoria kaiolan bezala zegoen. Ezin zuen onartu Marari adarra jotzea eta oihu handi bat bota zuen: Nahikoa daaaaa...!

—Ez ote didate entzuten? —zioen bere kautan.

Mara geldi-geldi zegoen, zuri-zuri. Zirik osagile bati paparretik heldu eta zerbait egiteko esan zion, bestela igande goizean osagileak berak joan beharko zuela ikastetxera eta irakasleak esandako ariketa guztiak egin beharko zituela. Osagilea serio-serio jarri eta lanean hasi zen.



Medikuak xiringa handi bat atera zuen kolkotik eta ikastetxean lehengo egunean klipez egindako katetxotik har txarren kontrako hegazkinak sartu zizkion Marari. Pilotuei belaunburura zuzen joateko esan zien eta hara heltzean, botoi gorriari sakatzeko. Pilotuek bete zuten agindua, baina bala-zuloetatik merenge zuri gozoa irteten zen eta ikasle guztiak gora adi zeuden aho zabalik.

Merengea bukatu zenean Ziri bera zihoan bolantean eta Mara ondoan.

—Baina, nik ez daukat karnetik eta anbulantzia gidatzen dut.

Zer da hau! —zioen Zirik.

—Bai, Ziri. Badaukazu. Osagileak eman dizu. Hegazkinak gidatzekoa ere bai.



Ziri zerbait lasaitu zen. Bidean zihoazela haize indartsuak jotzen zuen eta anbulantziari kolorea aldatu egin zitzaion. Orain Ziri eta Mara izozkiak saltzen dituzten furgoneta horietako batean zihoazen, abestu eta abestu.

Halako batean, ilundu egin zuen. Ez zuen ezer ikusten Zirik. Bat-batean argi handi bat ikusi zuen aurrez aurre.

—KONTUZZZZZ! —esan zion Marak.

Eta itzartu egin zen izerditan.



Amak logelako argia piztu zuen eta atean itxaron zuen, paper bat eskuan zuela. «Ondo pasa aterpetxean. Aita», zioen paperak.

Zirik irribarre egin zuen, bihotzaren taupada gogorren erritmoa gero eta lasaiagoa egiten zen bitartean. Amak gau-mahaian zeukan irratia piztu zion. Ama eta biak irratiko abestia abesten hasi ziren. Amak kantatu bitartean, Zirik txistuka laguntzen zion. Bukatu zenean, jaiki eta bainugelarantz abiatu zen begiak igurtzika, baina lasai eta pozik.



Ikusi nuenean

*Ikusi nuenean zure ile latza
iruditu zitzaidan, maitea,
sorginen erratza.*

*Ikusi nuenean zure bekokia
iruditu zitzaidan, maitea,
zartagi ipurdia.*

*Ikusi nuenean nik zure bekaina
iruditu zitzaidan, maitea,
gauaren kamaina.*

*Ikusi nuenean nik zure begia
iruditu zitzaidan, maitea,
anpolai gorria.*



*Ikusi nuenean zure belarria
iruditu zitzaidan, maitea,
azaren orria.*

*Ikusi nuenean nik zure sudurra
iruditu zitzaidan, maitea,
lukainka muturra.*

*Ikusi nuenean nik zure ahoa
iruditu zitzaidan, maitea,
karobi zuloa.*

*Ikusi nuenean nik zure okotza
iruditu zitzaidan, maitea,
gaztaina morkotsa.*

*Ikusi nuenean nik zure bularra
iruditu zitzaidan, maitea,
basoan txondorra.*






Zorra ordaindu

Lau eguneko asteburu luzea zeukaten aurretik hirugarren mailako gure neska-mutilek. Ostegunean jai eta ostiralean zubia. Zirik eta Marak, eta beste taldekideek asteburu luze hau aterpetxe batean pasatuko zuten. Eguraldi ona egiten zuenez kanpoko joko eta jolasetan emango zuten denborarik gehiena: lasterketak, sokatira, esku-jokoak, neskak mutilen aurka, harrapaketan... Iluntzean edo gauean aterpetxe barruan jarraituko zuten kartetan, hitz-jokoetan...

Ostegun goizeko zortzietan irten etxetik eta hamaiketan heldu ziren aterpetxera. Hara heldutakoan, gauzak antolatzen hasi ziren, batez ere taldeak egiten: sokatirarako, futbolerako, saskibaloirako, lasterketarako...

Ostegun arratsaldeko lauretan hasi ziren jokoak. Bostetan berrehun metroko lasterketa jokatu zen.

—Berrehun metroko lasterketan parte hartuko duten korrikalari guztiak datozela irteerara! —esan zuen antolatzaileak bostak puntu-puntuan, txistu-hots luze baten ostean.





Izena eman zuten zazpi korrikalarien artean Lander zen onenetarikoa, baina ez zen Ziri eta Mararen, eta Ikerren begiko; eta ez zuten nahi Landerrek irabaztea, begira zer egin zioten.

Lasterketa guztiak egin zituzten arboladian. Leku lau-lau eta aproposa zen lasterketak egiteko. Hamar metroko korridore zabala, zuhaitz artean.

Zirik eta Ikerrek arbola batetik bestera soka bat jarri zuten lurzoruan, ia-ia helmugan, eta soka hostoz estali inork ezer ez ikusteko.

Lander besteak baino metro batzuk aurrerago zihoan. Eskuak jasota zera-matzen irabazi egingo zuelako, baina helmugara heltzear zegoenean... zas!, hankaz gora jausi zen. Eta ez zuen irabazi, noski. Samira hankaluzeak irabazi zuen.





Arratsaldean beste era bateko lasterketa egin zuten. Lurzoruan lerro bat marraztu eta haren gainetik, irten barik, zeinek arinago egin. Pausoa lerro gainean ematen ez zuena kanpoan geldituko zen. Lasterketa hau banaka egin behar zen, jakina.

Iker izan zen lehenengo irten zena eta goizean Lander erori zen leku berean erori zen hau ere. Orkatila bihurritu eta lurrean etzanda geratu zen zutitu ezinik. Botikinera eraman behar izan zuten.

Zirik bazuen zerbaiten susmoa eta denek alde egin eta gero, ikusi egin nahi zuen zer zegoen. Zulo handi bat zegoen eginda eta, ez ikusteko, zotzak jarri zituen norbaitek zulo gainean eta zotzen gainean, zuloa egiteko gainetik aitzurraz kendu zituzten zotalak.

Ikerri orkatila handitu egin zitzaion. Min handia zeukan. Ezin zuen hanka zoruan ipini ere egin.

Zirik, libururen batean-edo, irakurrita zeukan antzina bazegoela erremedioren bat horrelako kasuetarako. Eta birritan pentsatu gabe aterpetxe inguruan bizi zen aguretxo batengana jo zuen.


—Bai, mutiko! Zaintiratua egin du zure lagunak. Nire emazteak badaki hori osatzen. Oraintxe deituko diot.

Etorri zen andrea eta aterpetxe-
txeko botikinera eraman
zuten. Han, mutikoaren
orkatila ikusi ondoren,
bere lanean hasi zen.





—«Zaintiratuarena» egin beharko diot —zioen.



Eta gauzak prestatzen hasi zen.

Landako belar batzuk hartu zituen alde batetik eta olioia,

orratza, haria, zinta bat...

bestetik eta hasi zen:

—Zain tiratu, zain urratu.

Hitz hauek esaten zituen

bitartean, gurutze bat

egin zuen orkatilaren

gainean, belar luzangari

mutur bietatik helduz.

Lehenengo, belarra modu

horizontalean jarriz eta,

gero, bertikalean. Eta

jarraitu egin zuen:

—Zaina bere lekuan sartu.

Eta berriro egin zuen gurutzea

orkatila gainean.

Hiru gurutze egin zituen, esaten zituen

hitzei eta egiten zituen keinuei misterio kutsua emanaz.

Gero zinta orkatilaren inguruan jarri eta orratza eta haria sartu eta atera egin zituen, josi barik, zerbait esaten zuen bitartean. Gero olioia jarri orkatilan eta



igurtzi egin zion, min eman arren. Hau guztia egin ondoren, igurtziak egin-dako lekuan, aurreraxeago gurutzeak egiteko erabili zuen belarraren klasekoak jarri zizkion eta zapi batez bildu zion orkatila.

Inork ezin zuen sinestu han ikusitakoak hain eragin handia izan zezakeenik. Denbora gutxi barru Iker martxan zegoen. Eta dena, zaintiratuarena egin ziolako.

Gaur egun ere atsotxoaren hitzak gogoan dituzte. Eta ikasleen artean lehia bezalako zerbait sortu zen eta edozein egoera aprobeztatzen zuten bertso laburren bat egiteko, egoera adierazteko, euren artean elkarri adarra jotzeko edo, besterik gabe, zeinek dotoreago egiten zuen jakiteko.

Lagunen bat haserre bazegoen zera esaten zioten:

Santi burrunzti, ume guztiak irentsi.

Baten batek asko jaten bazuen:

Nikolas, bete sabela okelaz!

Baten batek esaten bazuen:

Egia da!


Zera erantzuten zioten:

Egia, sudurraren ondoan begia.

Gezurra bazen, berriz:

Gezurra, begiaren ondoan sudurra.

Erakutsi zeuek ere horretarako duzuen trebetasuna! Jo eta ke, apurtu arte!






Trena omen zen

Ziri eta Mara bilduma zaleak ziren. Gaur irakaslearekin batera hasi dira hosto-bilduma egiten. Zeuzkaten hosto guztiak behar bezala sailkatu eta album batean jarri ondoren, zaletasun hori indartzeko ikasleek etxean dauzkaten bildumak edo egiten hasitakoak ekarri dituzte ikastetxera.

Denetarikoak agertu dira, batez ere kirol arlokoak. Marari trenak gustatzen zaizkio. Hainbat tren mota dauzka bilduman. Antzinakoak dira batez ere ikusgarrienak. Tren-bilduma ikusten luzaro egon ondoren, Marak bere birramonari gertatutakoa kontatu zien bere lagunei.

—Nire birramona oso gazterik joan zen neskame etxe batera. Etxe hartako ugazabak, behin zera esan omen zion:



—Inoiz ikusi duzu trenik?

—Ez, inoiz ere ez —erantzun zion.

—Joan zaitetz goiko landara eta handixe ikusiko duzu —esan zion ugazabak.

Birramona joan zen eta geroago itzuli zen etxera.

—Zer, ikusi duzu? —esan zion ugazabak.

—Bai. Ikustekoa, benetan! Aurrean zihoana arin zihoan, baina bigarrena ere ez zihoan astiroago, gero!



Ikasleak eta irakaslea barrez hasi ziren. Orduan Zirik Marari lagundu nahian, birramonaren kontura barre egin zutelako, esan zuen:

—Trenik inoiz ikusi ez duenari horrelakoak gertatzea ez da harritzekoa. Begira nire auzoko Martinen aitonari zer gertatu zitzaion:

«Martinen aitona artzaina zen. Eta artzainek, udazkenero, mendietatik herrietara jaisteko ohitura daukate, negua eta udaberri erdia pasa arte behintzat. Neguan mendietako janaria oso urria izaten da eta, gainera, elurra, izotza, txingorra edo ekaitza txitean-pitean.

Bazetorren artzaina mendian behera urtero bezala. Lehenengo aldiz zihoan herri horretara. Eta herri horretan trena ere bazegoen, baina artzainak ez zuen trena ezagutzen, inoiz ez baitzuen ikusi.

Ardiak herriko alkatearen larreetan sartuko zituen. Ordurako alkatearekin hitz eginda zegoen ardiak noiz sartu, zenbat ordaindu, eta abar.





Herrirantz zetorrela, ardien arran-hots artean, konturatu orduko, piztia handi bat, fiiiiiu! fiiiiiu! fiiiiiu! txistu-hotsean eta ketan pasatu zen bere ondo-ondotik.

—Hau ezustekoa! Jesauuuuus, Maria eta Jose! Hiltzeko ere! Zerk ekarri ote nau ni herri honetara! Ikusteko ere horrelako piztiarik! —esan zuen bere kautan, gelditu gabe aitarenka zebilen bitartean.

Ezin zuen irudi hura burutik kendu. Gorputza dar-dar batean zeukan. Hitzik ere ezin zuen atera.

Seneratu zeneko, piztiak alde egin zuen. Hamarren bat ardi lurrean hilda zeuden. Halakorik!

Ardiak bertan behera utzi eta alkatearen etxera joan zen gertatutakoa kontatzera. Alkateak, hain estu eta larri ikusirik, lasaitzeko eta jazotakoa kontatzeko esan zion.

Artzainak gogoratzen zuena, ahal zuen moduan, kontatu zion alkateari eta, azkenean, zera esan zion:

—Piztia aurrez zetorren eta eskerrak horri; alboz etorri izan balitz, agur nire artaldea eta neu ere!

—Egon lasai. Neuk ordainduko dizkizut ardiak eta jan dezagun zerbait, gose ere izango zara eta —esan zion alkateak.





Hor ez zen bukatu dena. Horretan zeudela, zerbait jaten, alkatearen emaztea bazkaria prestatzen zebilen. Artzainak usain gozoa sumatu zuen.


Artzainak mendian erabiltzen zituen lapikoak baino berriagoak zeuden alkatearen etxean, espres horietakoak, eta, halako batean, lapikoa irakiten hasi zen, txistu-hotsa ateraz eta lurruna jaurtiz, tximinia baten moduan.

Ordubete lehenago ikusitako piztia bururatu zitzaion artzainari eta alkateak jesartzeko eman zion aulkia hartu eta lapikoa astintzen hasi zen, dinbi-danba.

—Gizon hau zoratu egin da, zoratu! —ziotson alkateak bere emazteari.

—Zoratu ni? Piztia hauek txikitan desegin behar dira, gero ez dago hauek gelditzerik! —erantzun zion artzainak, dinbi-danba jarraitzen zuen bitartean.»

Txalo-hots handia entzun zen ikasgelan kontakizuna bukatutakoan.





Sagar erdia

Ziri eta Mara jo ta ke zebiltzan liburutegian, ikastetxean egingo zen antzerki-lehiaketa prestatu nahian. Bikote berezia osatzen zuten eta bata ezin bizi bestea gabe. Bazekiten bakarka ezin izango zutela nahi zuten lekura heldu. Biak batera, ostera...

Ikastetxean antzerki-lehiaketa antolatzen zen urtero, mailaka. Ez zen gauza erraza. Antolatzea bai, baina taldeak osatzea, denbora ateratzea, prestatzea... ez zen erraza, ez. Hori dela eta, Zirik eta Marak antzezle gutxiko antzerkia aurkitu eta prestatu nahi zuten. Baina nola egin, taldeak zotzetara egingo zituen irakasleak eta!

Irakasleak kutxa batean sartu zituen ikasle guztien izenak eta, halabeharrez, Mara izendatu zuen izenak ateratzeko. Marak bere izena, esku baten barruan zeukan eta, bestean Zirirena eta Ikerrena.

Hasi zen izenak kutxatik ateratzen eta Iker atera zuen lehenengo. Hurrengoan eskua sartu bai baina, Zirirena atera zuen esku barrutik eta, hurrengoan, Mara jartzen zuen papertxo.

—lupiiii! —esan zuen zoriak hala nahi izan balu bezala. Taldea osatuta zegoen. Gero, jarraitu egin zuen izenak ateratzen talde guztiak osatu arte. Zirik eta Marak, eta Ikerrek ondoko hau antzeztu zuten.





Sagar erdia, antzerki saioa

Antzezleak: Neska-mutilak eta agurea. Ikerrek egingo du agurearena.

Marak sagar bat aurkitzen du gelan.

MARA

E! Ziri! Sagar bat aurkitu dut.

ZIRI

Ene! Emaidazu erdia. Sagar erdiaren truke neure arkatzaren erdia emango dizut.

MARA

Bale. Emaidazu zure arkatzaren erdia.

ZIRI

Hementxe duzu. Hartu. (Arkatzaren erdia ematen dio Marari.)

MARA

Ederto. Orain nik sagarraren erdia emango dizut. (Sagarraren erdia ematen dio Ziriri.)

ZIRI, haserre.





E! Mara! Zure erdia nirea baino handiagoa da, ezta?

MARA

Zer diozu? Berdin-berdinak dira eta!

ZIRI

Ea, utzidazu zure zatia eta ikusi egingo dugu.





MARA

Zuri utzi? Ezta, ezta...

ZIRI, gero eta haserreago.


Ez, ez! Zu betikoa zara! Ez diozu, bada, biak direla berdinak? Berdinak badira, har ezazu neurea eta nik zeurea hartuko dut.

MARA

Ez, ez dut nahi. Ez dizut emango.

ZIRI, eskua jaso eta jotzeko keinua eginez.

Ematen ez badidazu jo egingo zaitut.




(Marak sagar erdia ezkutatu egiten du ostean eta atzerantz egiten du Zirigandik zerbait urrunduz. Horretan, agurea agertzen da.)

AGUREA

Baina, zer da hau? Zer dela-eta, horren haserre?

(Haserre jarraitzen dute Zirik eta Marak, bata besteari sagar erdia kendu nahian.)



ZIRI

Zer gertatzen den? Bada, nik Marari arkatzairen erdia eman diodala eta berak niri sagarraren erdia. Baina bere erdia nirea baino handiagoa da.

MARA



Ez, ez da handiagoa. Berdinak dira. Begira! (Agureari ematen dio sagar erdia.)

AGUREA

Ea, orain zure sagar erdia ere ikusi nahi dut. (Agurea Ziriri begira eta eskua luzatuz.)



AGUREA

Zati hauek berdina dira. Zer dela eta eztabaida hau?


ZIRI

Ez. Mararen erdia handiagoa da.

MARA

Ziri, gaiztoa zara, gero! Ez diozu, bada, gizon honi entzun biak direla berdina.

Emaidazu nire zatia. (Agureari begietara begiratu.)




AGUREA

Hara, Mara! (Agurea Marari begira.) Zure ustez Ziriren zatia eta zure zatia berdina dira. Hori horrela bada, zure zatia Ziriri emango diot eta Zirirena zuri.—

MARA

Ez, ez. Emaidazu neure erdia.




AGUREA

Bada..., hobeto pentsatu, Mararen sagar erdia handiagoa dela uste dut. Zatitxo bat kenduko diot eta horrela biak berdina izango dira.

ZIRI, pozik

Bai, orduan berdina izango dira.

(Agureak Mararen erdiari zatitxo bat kentzen dio. Mara begiak zabal-zabalik dago agureari begira.)



MARA, haserre bere zatia eskuan duela.

Ene! Orain Ziriren zatia handiagoa da! Orain Zirirena nahi dut.

ZIRI

Ez. Orain berdina dira. Oso ondo dago.



AGUREA


(Agureak berriro begiratzten die sagar zatiei. Neska-mutilei eskumuturre-tatik heldu eta, gora jaso, zera dio): Ez. Orain Ziriren erdia handiagoa da. Zatitxo bat kendu beharko diot berdinak izateko. (Eta zatitxo bat kentzen dio.)

ZIRI

Orain Mararen erdia nirea baino handiagoa da. Mararena nahi dut.

MARA

Ez, ez. Berdinak dira.



AGUREA


Mararen erdia handixeagoa dela uste dut. Zatitxo bat kendu beharko diot berdinak izateko. (Agureak beste zatitxo bat kentzen dio.)

MARA

Orain Zirirena handiagoa da!

AGUREA

Bai? Bada, beste zatitxo bat kenduko diot. (Agureak Ziriren zatia hartu eta jan egiten du.)



ZIRI

Horrelakorik! Zer egin duzu? Orain Mararena handiagoa da!

AGUREA

Lasai. Berehala konponduko dut arazoa. Horretarako Mararen zatia ere jan egingo dut eta kito! (Eta agureak Mararen zatia ere jan egiten du. Neska-mutilak agureari begirik kendu ere egin gabe gelditu dira.)

AGUREA

Gaztetxook, ikusi eta ikasi. Ez inoiz haserretu. Haserreak haserrea baino ez dakar-eta. Eta biren haserrea hirugarrenarentzat baino ez da onuragarri.

EUSKERAZALEAK, ERATUA
PAUSOKA 4/5



Kismi eta Olentzero

Hotz egiten zuen arratsalde hartan. Kanpoan elurra zegoen eta hirugarren mailako ikasleak jolas-orduan, han zebiltzan elkarri elur-bolak jaurtika. Ji-ji-ji, ja-ja-ja eta, noizbehinka, elur-bolak min eginez gero, aieneka ere hasten zen jendea.

Ziriri elur-bola batek belarrondoko ederra eman zion. Mara laster joan zitzaion kontsolamendua ematera. Hitz goxoak esan zizkion eta eskua masail gorrituan jarri zion. Ziriri mina arindu egin zitzaion neskatilaren laguntza hura zela medio. Mutikoak isilik gorde zuen bere samina, baina lortu zuen nork eman zion jakitea. Jon izan zen.

Zirik barruan gorde zuen haserrea. Izan ere, belarriak hotz-hotz dituzula elur-bola batek jotzea ez da karamelu bat jatea.

Berak ere egin zuen elur-bola bat eta Jon ezustean noiz harrapatuko zegoen. Halako batean, zas!, betondoan jo zuen. Jon esku biak buruan zituela, negarrez, barrura sartu zen.

Jolas-ordua bukatu ondoren, denak gelan zeudela, Jon burua mahai gainean zuela zegoen.

—Jon, zer gertatzen da? —esan zion irakasleak.





Jonek burua jaso zuen eta ubel-ubel eginda zeukan betondoa.

—Holakorik! —esan zuen irakasleak—. Joan zaitetz botikinera!

Ziri isilik zegoen. Badakizue zer egin zuen? Elur-bolari, barruan, harri bat sartu zion. Astakirtena, halakoa!

Irakaslea galdezka hasi zen, baina inork ez zekien, edo horixe zirudien.

Horretan zebiltzala norbaitek atea gogor jo zuen, behin eta berriro. Denak isildu ziren. Atea zabaldu eta itxura xeibreko gizon bat sartu zen ikasgelan.

Denak geratu ziren aho-zabalik.

—Kaixo, lagunok! Ez nauzue ezagutzen, ezta? Urrunetik nator eta mezu bat dakart.

—Nor zara, bada? —galdetu zion ikasgelako ausartenak.

—Benetan jakin nahi baduzue, entzun adi —erantzun zien gizon berezi hark. Eta historia hauxe kontatu zien:

«Hara, antzina, Jesukristo jaio baino lehen, ni eta ni bezalako beste asko jentilak ginen eta mendietan bizi ginen. Indartsuak ginen.

Behin, negua hasi eta laster, zeruan, laino zuri bat agertu zitzaigun. Ez genuen inoiz ikusi halako lainorik eta beldurtu egin ginen.

Gutariko jentil batek hauxe esan zuen:



—Goazen leizezulora ea Jentil Zahar-ek dakien. Gu baino askozaz ere zaharragoa da eta berak esango digu.

Eta halaxe egin genuen. Leize-zulora heldu gine-nean, hantxe aurkitu genuen Jentil Zahar. Goibel, triste eta makur zegoen. Jentil Zahar-en inguruan jesarri ginen eta zera esan genion:

—Ekialdetik laino zuri bat heldu zaigu eta ez dakigu zer den. Asmatuko duzulakoan jo dugu zugana.

Orduan Jentil Zahar-ek burua jaso zuen, baina, zaharraren zaharrez, ezin zituen betazalak jaso. Geuk ireki behar izan genizkion lainoa ikusteko. Begiak larri-larri jarri zitzaizkion eta zera esan zuen:


—KISMI jaio da! KISMI jaio da! Gureak egin du! Bota nazazue haitzean behera!

—Nor da KISMI? —galdetu genion.

—KISMI Jainkoa da eta mundura etorri da. Haren seinale dugu laino hau. Guk ez daukagu hemen zereginik. Orain bera da nagusi —erantzun zuen.

Guk Jentil Zahar-en agindua bete egin behar izan genuen. Gero mendebalderantz abiatu ginen.

Bidean gentozela, ezbeharrez, denak galdu ziren neu izan ezik. Ni gazteena nintzen eta nire lagunak galdu ziren lekuan harri handi bat jarri nuen. Jentil-larri deritza. Gero mendian behera jarraitu nuen herritxo batera heldu arte.






Herrian deiadarka hasi nintzen:

—KISMI jaio da! KISMI jaio da! Poztu zaitezte!

Berri hau herrian zabaldu bezain laster, jendea neugana hurbildu zen eta, nekatuta eta gose nintzen arren, herritarrek ekarritako janariz eta edariz ase-ase eginda geratu nintzen.

Ase-ase egin eta gero, aulki baten gainean jesarrita, herririk herri eramán ninduten, pipa hortzean nuela. Harrezkero urtean behin egiten dut joan-etorri bat menditik herrietara, zuengana. Beti ekarriko dizkizuet gauzarik onenak.»



—Aio, aio! Datorren urtera arte!

Eta eskua jasz, gizon hura kanporantz abiatu zen. Gelan zeuden ikasle guztiek jarraitu egin zioten nor zen asmatu egin zuten-eta. Eta handik kilometro batera zegoen herritxo bateraino lagundu zioten abesti eta txalo artean. Beste herritarrek ere gauza bera egin zuten: hurrengo herriraino lagundu zioten. Eta horrela eman zuen gizon hark gau osoa.



Ohitura zaharrak

Zirik eta Marak beti zuten zerbait buruan. Beti zerbait asmatzen. Gabonetako oporretan dirua lortu nahi zuten, Inauterietarako soineko berriak egiteko. Eta zer egin?

Marak Ziriri telefonoz deitu zion.

—Ziri, ideia dotorea bururatu zait dirua lortzeko! —esan zion Marak.

—Neuk ere badaukat beste bat. Arratsaldean bolalekuan ikusiko dugu elkar, beti bezala, bale? —erantzun zion Zirik.

—Bale! —esan zion Marak.


—Zer ote dauka Marak? —zioen bere barrurako Zirik.

—Zer ote dauka Zirik? —zioen Marak.

Arratsaldeko lauretan bolalekuan zeuden biak. Mara hasi zen lehenengo.

—Badakit zer egin, Ziri —esan zion—. Amak zera esan dit, eurak txikiak zirela, Urte Berri egunean etxez etxe joaten zirela neskak eta abestu egiten zutela ate bakoitzean. Etxe guztietan jasotzen zuten zerbait, dirua ere bai. Geuk ere horixe egingo dugu. Zer deritzozu?


—Eta zer abesten zuten? —galdetu zion Zirik.





Eta Marak abestu egin zion:

*Urte berri
txerri belarri,
daukanak ez daukanari,
nik ez daukat eta niri ekarri.*



—Ederto —esan zion Zirik—. Bada, neuk ere gauza bera neukan zuri esateko, baina ez Urte Berri egunean, Erregeen egunean baizik. Egun horretan mutilak joaten ziren etxez etxe abesten. Eta ate guztietan ematen zieten zerbait. Horixe esan dit aitak. Zer deritzozu?

—Oso ondo dago hori! —esan zion Marak—. Ni Urte Berri egunean joango naiz eta zu Erregeen egunean.

—Ziri, eta zer abestuko duzu? —esan zion Marak.

—A! Pozaren pozaz ahaztu egin zait —erantzun zion Zirik—. Hauxe, entzun:



*Apalazio zalduna
Hiru erregeen eguna,
Hiru erregetarik
zotzak eta paluak
Martin Antonioren kontuak.
Martin Antoniori
eraman dizkio
hiru oilanda katuak.
Hezur horiek batu ezinda
hark darabiltzan saltoak.
Salto eta salto katuak.*



—Oso ondo dago, Ziri. Horrenbeste abestuz gero, zaku bete diru batuko duzu! —esan zion Marak.

—Eta beste bat ere badaukat. Hau irakurri egingo dizut. Paperean daukat idatzita —esan zion Zirik.

Eta papera poltsatik atera eta irakurri egin zion:

*Apalazio zalduna
Hiru erregeen eguna.
Zotzak eta paluak,
Martin Antonioren kontuak.
Estudiantea sasirik sasi,
asko jan eta gutxi ikasi.
Txoritxoak kaiolara,
estudiantea eskolara.*



—Horixe egin beharko dugu geuk ere, Ziri, abesti hori abestu eta hurrengo egunean. Baina dotorea da, biak dira dotoreak —esan zion Marak.

Eta Mara Urte Berri egunean eta Ziri Erregeen egunean etxez etxe ibili ziren. Itsulapiko bete diru batu zuten.



Merkealdiak

Gabonetako oporrak bukatu bezain laster, merkealdiak hasi zirenean, dendaz denda joan ziren inauterietarako jantziak egiteko oihal bila.

Kalean zehar zihoazela, «jaa... ja... ja... ja... ja!», hasi zen Mara.

—Zer gertatzen zaizu —esan zion Zirik.

—Begira, begira, jaaa... ja... ja... ja, horra aurrera! —erantzun zion Marak ia-ia hitz egin ezinik.

Zirik ere barre egiten zuen, baina ez zekien zergatik; Marak egiten zuelako egingo zuen beharbada. Halako batean ikusi zuen ikusi behar zuena: emakume bat zegoen dendako erakusleihoan bizkarra kalerantz zuela, merkealdietako jantzi bakoitzari bere prezioa ipintzen. Emakumea bera ere salgai zegoela zirudien. Bizkarrean paper handi bat zuen itsatsita eta paperean iragarki hau irakur zitekeen:

JANTZIMERKE!
JANTZIMERKE!
JANTZIMERKE denda!

- **Neguko hotzaren beldur bazara, zatoz JANTZIMERKEra!**
- **JANTZIMERKE n sartuaz batera berotuko zara!**
- **Eskaintza ezin hobekak!**

*A! Eta hauxe onena: Gaur ordaindu eta bihar doan!
Nor ibiliko da zure ondoan?*

120 eurotik gorako zerbait erosiz gero, sariren bat ere irabaz dezakezu. Zozketa IRUZUR notarioaren aurrean egingo da otsailaren 30ean.

*Zatoz, JANTZIMERKEra. LAPURTEGI kalean gaude.
Egia, egia, sudurraren ondoan begia!*

*Edo deitu telefono bi hauetara:
999 222 00 00 hotz ez dena bero. Edo,
999 333 00 00 erosi ezaren damu izango haiz gero!*



Ezin izan zuten iragarki osoa irakurri. Euren gustuko oihalak ikusten ziren barruan eta sartu egin ziren. Barreari eutsi ezinik zeuden oraindik. Emakumeak, harrituta, zer gertatzen zitzaaien galdetu zien.

—Ez, ezer ez, hor atzean, bizkarrean... ja...ja...ja! —esan zion Zirik.

Emakumeak eskua bizkarrera bota eta iragarkia kendu zuen. Gero Ziriri eta Marari azaldu egin zien zer gertatu zitzaion.

—Hara! —esan zien emakumeak—, egun hauetan lan asko daukagu merkealdiak direla-eta. Goizean goiz etorri naiz dendara eta iragarkiak atzo eginda neuzkanez, gaur goizean kola eman diet erakusleihoan jartzeko. Kola eman ahala, aulkian uzten izan ditut ahuspez; baina hain nekatuta nengoenez, kon-turatu gabe iragarki honen gainean jesarri naiz, dirudienez eta ...

Ziri eta Mara lotsatu egin ziren. Ez zutela asmo txarrik esan zioten emakumeari. Gero, emakumea pozteagatik edo, iragarkia oso ondo eginda zegoela esan zioten. Eta behar izan zuten guztia bertan erosi zuten.



Mararen mendekua

Ziri eta Mararen ikasgelakoek, ikasturtearen hasieran, itsulapikoan diru kopuru bat sartzea erabaki zuten eurek egoki zutenerako: ibilaldi, askari, antzerki edo jaialdiren baterako.

Aterpetxera egin zuten bidaia gogoan zuten eta asteburu on baten bila zebiltzan berriro ere hara joateko. Dena zeukaten prest. Umorea ez zen falta. Neskak mutilak baino adoretuago zeuden.

Bidean zihoazela ez zen txisterik, asmakizunik, abestirik edo horrelakorik falta izan. Halako batean, gidariak oharrak emateko erabiltzen zuen mikrofonoa hartu zuen Ikerrek eta zera esan zien beste guztiei:

—Badakizue zein den animaliarik zuhurrena?

Bakoitzak bana esan zuen: elefantea, txakurra, balea, arranoa, lehoia, azeria, zaldia..., baina ez zuten asmatu.

—Zein da, bada? —galdetu zion eurretako batek.


—Txita —erantzun zien Ikerrek.

—Eta hori, nola izan daiteke?

—galdetu zion aurreko galdera egin zionak.

—Erraz, mutil, erraz! —erantzun zion. Eta azaldu egin zion.

—Begira! —jarraitu zuen azaltzekotan—. Txita, aitarik ez duelako eta ama loka delako.





Ulertu zutenak barre algaraka hasi ziren. Ulertu ez zutenak aho zabalik. Hauei azaldu egin behar izan zien. Gero, berriz ere, denak barreka.

Zirik beste hau kontatu zuen:

«Behin, kartetan goizaldera arte ekin ondoren, txizalariak jota, tabernatik irten ziren bi lagun. Horretan zebiltzala, batak gora begiratu eta ilargia ikusi zuen.

—Hi, zer duk hori? —galdetu zion besteari.

Bestea alboko herrikoa zen eta hauxe erantzun zion.

—Ez zakiat. Ni ez nauk hemengoa.»

—Hoolakokorik ez diat inoiz eeentzun —esan zien gidariak mikrofonoa eskuan hartuta.

Lehenago barreak eta zantzoak ugariak baziren, orain, gidariari totalka entzun eta gero, lehertu beharrean zeuden.

Heldu ziren heldu behar zuten lekura. Poltsak, motxilak... autobusetik atera eta autobusak etxerako bidea hartu zuen. Gidaria Leon zen. Ikasleek gidariari, agurtzean, zera esan zioten: «Gero arte, aparte!» Napoleon izan balitz, Bonaparte esango zioten; baina Leon baino ez zenez, nahikoa zela uste zuten «aparte» esatea. Gidariak bozina-hotsean agurtu zituen.





Neska-mutilok euren motxilak hartu eta aterpetxean sartu ziren. Ostiral iluntzea zen. Egunak gero eta laburragoak ziren eta goiz ilundu zuen. Eguraldia hotz samarra zen.

Eurekin zegoen irakasleak gela banaketa egin zuen eta han zebiltzan gela batetik bestera afaldu arte. Lo egiteko lekua handia zen. Pabilioi handi bat. Barruan bi ilara logela, logela bakarrak, erdian pasillo edo korridore bat zuela. Eta lekutan-lekutan argi motel batzuk, gauez jaiki beharrik izanez gero komunera-edo, bidea ikusteko. Pabilioiko ezker aldeko gelak neskek hartu zituzten. Eskuinekoak, berriz, mutilek.

Ikerrek Mararen aurrez aurreko gela hartu zuen. Irakasleak hogeiren bat minutu eman zizkien gauzak gelan sartzeko. Gero, ez ziren hara itzuliko gauera arte.



— Gauean oheratu baino lehen, kontu kontari zeuden aterpetxearen aurrean, egotaro ezin hobean.

—Hooonezkero gure Leon heelduko zen eetxera, eezta? —esan zuen Ikerrek.

—Hiiitz eeegiten duen mamamartxan jojojoan babada, ooraindik luluzaroroko dadauka —erantzun zion Leirek.

—Ea, utzi Leon bakean eta oheraratu egin beharko dugu —esan zien irakasleak.

—Eta, zuk, irakasle ez dakizu horrelako gertaerarik? —galdetu zion batek.

—Neuk kontatuko dizuet bat —esan zien Marak. Eta ipuin hau hasi zen kontatzen:



Hiru alaba hitz-totelak

«Ama batek hiru alaba zituen, hirurak jostunak. Ederrak ziren, baina hirurek zuten akatsa hitz egiteko, hitz-totelak ziren.

Behin mutil gazte bat neska hauen etxera joan zen, hauetako batekin ezkondu nahi zuen eta.

Amak isilik egoteko esan zien hirurei mutila han egon bitartean, berak egingo zuela hitz eta. Totelak zirela konturatuz gero, ez zuen beraiekin ezkondu nahi izango. Baina halako batean, nesken ama eta mutila berbetan ari zirela, euretako bati haria apurtu zitzaion eta zera esan zuen:

—Halon, halia apultuon! (Haron, haria apurtu don.)

Beste alabetako batek:

—Korankiloa kemaion! (Korapiloa emaion.)

Eta hirugarrenak:

—Amak etan ititilik toteko ta tuek etin titiliton!
(Amak esan isil-isilik egoteko eta zuek ezin isilik egon.)»





Txalo-zaparrada handia entzun zen. Eta berandu zenez oheratu egin ziren.

Dena zegoen isil-isilik. Marak ezin zuen lorik egin, ohea ez zen etxekoa bezalakoa eta. Ordu biak-edo izango ziren. Marak atezarata bat entzun zuen. Atea isil-isilik zabaldu eta Iker ikusi zuen Ziriren gelan sartzen.

Ikerrek atea erdi zabalik utzi zuen. Marak, gelan zegoen plastikozko poltsa zapal bat hartu, komunera joan eta urez bete zuen. Iker oraindik Ziriren gelan zegoen. Marak Ikerren izararen azpian sartu zuen poltsa eta isil-isilik itzuli zen berriro bere gelara.

Ikerrek egin zuen egiteko oihua ohean sartzerakoan!

Ez zegoen turuta ez tuluta, ez tututuluta jo beharrik jendea iratzartzeko. Ikerren oihua turutarik nahikoa izan zen.





Fitxa betetzen

Ikasturtea laster bukatuko zen. Pozik zeuden ikasleak udalekura joateko fitxa betetzen. Hango zalapartak, barreak, adar-jotzeak... ez zeukan azkenik. Udalekuan ere ez zuten hain ondo pasatuko. Jon gizagaixoa, ostera, erdi negarrez zegoen. Arazoren bat zeukan.

—Zer gertatzen da Jon? —esan zion irakasleak.


—Fitxan ez zaizkit abizenak sartzen eta ez dut udalekura joan gabe gelditu nahi —erantzun zion Jonek.

Ikasle guztiak hurbildu ziren Jonengana. Denak zeuden harrituta. Fitxako hutsune guztiak zituen letraz beterik.

—Jon, abizen bat jarri behar da lerro bakoitzean —esan zion ondokoak.

—Horixe nahi dut, baina ez zait sartzen —erantzun zion.

—Bat? —esan zion lagunak—, hor lau ere badaude.





Ikaslerik gehienek «Garro» deitzen diote Joni, baina abizen osoa GARROGE-
RRIKAURIBEETXE BARRIA da. Luzea, ezta? Bada, bigarrena sokatiran egiteko
bestekoa da. Ikasleek «Goiko» dela uste dute, baina... irakurri, irakurri osorik
eta esan gelditu ere egin gabe Jonen bigarren abizena: GOIKOZELAIGUNE-
KOAREZPAKOTXANDIAGA.


Eta berriro barreak, algarak, zalaparta... inork ezin baitzuen abizena osorik
esan gelditu gabe. Zer zen hura!

—Jon, eta abizen guztiak dituzu horrelakoak? —esan zion batek.

—Ez, hirugarrena OSA da eta laugarrena IZA —erantzun zion Jonek.


—Tira! —erantzun zion lagunak—. Aldatu egin beharko zenituzke. Gainera
musika eta guztiko izen-abizenak izango zenituzke: Jon Osa Iza, Jon Osa Iza...

Eta ikasle guztiak hasi ziren: Jon Osa Iza, Jon Osa Iza, Jon Osa Iza... Eta hitz
bakoitza esan bitartean txalo egiten zuten erritmo eta guzti.



Tira, arazoa konpondu zuen
irakasleak eta orria betetzen
jarraitu zuten. Azken datuak
gurasoen izenak ziren eta
hori ere bete egin behar zuten.
Gero etxera eraman beharko
zuten eta hurrengo egunean
gurasoek izenpetuta ekarri
ikastetxera.

Irakaslea ikasgelan alde bate-
tik bestera zebilen inork hutsik
egin ez zezan. Halako batean,
Iñigoren ondora heldu zen.



—Iñigo, zein da zure aitaren izena? —esan zion irakasleak.

—Bartolo —erantzun zion.

—Ez, gizon, ez. Bartolome da. Bartolome, «me» eta guzti idatzi behar da —esan zion irakasleak ozenki.

Irakaslea beste alde baterantz zihoan eta Landerren mahai ondoan gelditu zen.

—Eta zure aita Doro da, Lander? —esan zion irakasleak.

—Batzuek Doro esaten diote, beste batzuek Teo —erantzun zion Landerrek.

—Orduan, Doroteo izango da —erantzun zion irakasleak.

—Amak, haserre dagoenean, Teodoro! esaten dio —erantzun zion Landerrek.

Berriro ere barre eta algarak ikasleen artean.

Arazo txiki hauek bukatu ondoren orria gorde egin zuten eta hitz-jokoan hasi ziren.



Irakaslearen urtebetetzea



Egun horretan denak zeuden pozik euri-lanbroa egin arren. Irakaslearen urtebetetzea zenez, jai egingo zuten. Goizean jokoak eta arratsaldean partiduren bat edo beste.

Batzuk partxisean, beste batzuk ping-pongean... Ziri eta Mara, eta Iker eta Samira mahai baten inguruan jesarrita, umoretsu, pozik eta zalapartatsu zebiltzan.

Gelako beste ikasleen artean jakin-min handia sortu zuen zalaparta horrek. Eta orain bat, geroagoa beste bat, denbora gutxi barru denak zeuden belar-meta bat bezala, elkarren gainean, Ziri eta Mara, Iker eta Igone erdian zuedela. Hainbeste jende inguruan eta gainean zegoenez ez zegoen jokatzeko jarraitzerik. Jokatzeari utzi zienean belar-meta zabaldu egin zen.

—Ea, jesarri zaitetze launaka mahai baten inguruan, jokoak azaldu egingo dizuet eta —esan zien Marak—. Zozketara jokatu da nor hasiko den atzamarra harrapatzen. Nahi izanez gero gazteena has daiteke. Harrapatzaileak ere atzamarra luzatuta edukiko du baina, jakina, ez du berea harrapatuko.



—Ja, ja, ja, ja... —barreka hasi ziren denak.

—Gero —jarraitu zuen esaten Marak—, bakoitzak esku bateko atzamar erakuslea luze-luze eginda, besteak batuta dituela, jarri behar du mahai gainean. Ea, egin denok hori!

Eta han zeuden ikasle guztiak atzamar erakuslea luze-luze eginda eta adi-adi Mararen oharrak entzuten.

—Mara, nor izango da bigarren harrapatzailea?

—galdetu zion Mikelek.

—Bigarren harrapatzailea, aurreko jokoan harrapatua izan dena. Eta beti horrela, jokoa bukatu arte —erantzun zion Marak.


—Eta noiz harrapatu behar da bestearen atzamarra? —galdetu zion Gorkak.

—Begira, lehenengo, idatzi egingo dut arbelean —esan zion Marak.

*Atxea motxea, peroli-pan
zure semea erro-tan
errota txikerra klin-klan
Kata-lina Ben-tako erre-kan
tipi-rripi-ton, Martin zapa-ton
kaina-bera tronpe-ta lau kiri-kon.*

Txirripi-txarrapa, txirripi-txarrapa... zas!

Hitz osoa edo hitz zati bakoitza, erritmoa eramanez, esan behar du harrapatzaileak jokalaria bakoitzaren atzamar erakuslearen gainean, arbelean zatituta ikusten duzuen moduan. Erritmoa bi pauso ematea bezalakoa izango da: pin-pan, pin-pan, pin-pan... —esan zien Marak.





—E!, Gorka! Txirripi-txarrapa, txirripi-txarrapa... hasiz gero, edozein ordutan eta edozeinen atzamarra harrapa daiteke, bale!

Eta Marak jarraitu egin zuen azaltzen:

—Atzamarra harrapatzean, zas! esan behar da eta zera galdetzen zaio harrapatua izan denari: «Pitxik ala koskor?» Hau da, pitxikada ala koskorrekoa nahi duzu? Pitxik aukeratzen badu harrapatuak, pitxikada edo atximurkadatxo bat ematen zaio esku-lepoan. Koskor aukeratuz gero, koskorrekotxo bat buruan. Jokatzen dutenek jarriko dute muga edo erabaki nor den irabazle. Horrelakorik nahi ez balu, beste zerbait ere eska diezaiokezue: asmakizunen bat, txisteren bat, esaeraren bat, dantzan egitea, pertsonaren bat imitatzea..., aukeran eman.

Ziri eta Mararen gelan hogeita zortzi ziren. Goiz horretan bat gutxiago zegoen gelan, Idoia zen, osagilearengana joan behar omen zuen-eta. Bere ordeztan, mahai inguruan, irakaslea jesarri zen.



Zalaparta hotsean zeudela, Idoia sartu zen ikasgelan.

—Zer gertatzen da hemen? Oilategia dirudi gela honek! —esan zuen Idoiak.

—Joko berri bat ikasi dugu, jesar zaitetzazu ere neure lekuan —esan zion irakasleak.

Idoiak arbelean idatzita zegoena ikusi zuenean zera esan zien:

—Niri beste era batera irakatsi zidaten etxean.



—Esaiguzu —erregutu zioten bere lagunek.

—Arbelean idatziko dizuet, bestearen parean.
Joko berbera da baina letra hasieran baino
ez da berdina —esan zien Idoiak.

Eta Idoia idazten hasi zen arbelean.

*Atxe motxea peroli-pan
zure semea erro-tan
joan nintzen baso-ra
topa nuen erbi bat
jaurti nion harri bat*

*atera nion ezke-rreko begi gorri handi-a
zelemin-kanpa, zelemin-kanpa, zelemin-kanpa... zas!*

Eta Idoiak idazten bukatu bezain laster zazpi taldeak
berriro hasi ziren bateko txirripi-txarrapa, txirripi-
-txarrapa, besteke zelemin-kanpa, zelemin-kanpa...
goiz osoan.

Eta badakizue zer erabaki zuten denen artean?
Harrapatuak zirenak, ikasle guztien aurrean,
bakoitzak gauza desberdin bat egitea. Eta halaxe
egin zuten. Batek txiste bat kontatu, beste batek
nor bait imitatu, beste batek asmakizun bat jarri,
esku-joko bat...

Eta, jolastu eta jolastu, goiz hartan inoiz baino
gauza berri gehiago entzun eta ikasi zuten
elkarrengandik.





Egun bat zoon

Ikasturtea aurrera zihoan. Ziri, Mara eta taldekideek ikastetxe barruan irakurriz eta entzunez ikastea baino nahiago zuten ikusiz ikastea.

—Noiz egingo dugu ikustaldiren bat? —esan zion Marak irakasleari.

—Nora? —erantzun zion.

—Irratiren batera, egunkari erredakzioren batera, museoren batera, nora-bait —erantzun zion Marak.

—Hori, hori! —esan zuten beste guztiek.

Mara harro sentitu zen ikaskideak — bere alde egoteagatik eta bere ideia ontzat emateagatik. Irakasleak, berriz, talde osoa hain sutsu eta gauza berriak ezagutzeko hain jakin-min handia zutela ikusiz, ezin esan ezetzik.


—Zoorra joango gara —esan zien irakasleak.

—Gu han uztekotan, ezta? —esan zion Zirik txantxetan.

—Batzuetan...

Eta irakaslea isildu egin zen.

Ostiral goizean hamarretarako zoon zeuden, baina ez denak: Mara etxean geratu zen sukarra zela eta.





Batera eta bestera, gora eta behera, aurrera eta atzera... ezin hobeto igaro zuten goiza. Bazkaldu, zooan egin zuten. Tira, bazkaldu... bazkaldu. Ez dakit bazkaldu ala bigarren zooa sortu zuten: bat tximinoarena egiten, beste bat elefantearena, beste bat otsoarena, beste bat ez dakit zerena. Bazkaldu eta gero zooko aretoan pelikula bat ikusi zuten: «Txakurra eta otso».

Mara ezin izan zenez joan, Zirik igandean kontatu egin zion zooan ikusitakoa eta batez ere pelikula; hauxe izan zen gehien harritu zuena Ziri eta. Eta honelaxe hasi zen Marari pelikula kontatzen:

Txakurra eta otsoa

«Antzina, baso baten ondoan, sendi bat bizi zen. Txakur bat zeukaten, oso zaharra. Inguruko txakurrik zaharrena zen baina zuhurrena ere bai. Behin ugazabak, txakurra zaharra zela, ez zuela etxea behar bezala zaintzen... eta etxetik bota egin zuen.

Txakurrak, batera eta bestera luzaro ibili ondoren, zera esan zion bere buruari:

—Hau da hau! Hainbeste urte etxea zaintzen eta orain ugazabak etxetik bota egin nau zaharra naizela-eta. Zer gertatuko ote zait?

Horretan, otso bat hurbildu zitzaion.





—Triste eta goibel ikusten zaitut. Laguntzarik nahi baduzu, lagun-
duko dizut —esan zion otsoak. Txakurrak gertatu zitzaion guztia
kontatu zion. Geroago, zera proposatu zion:

—Nire ugazaba sorora joaten denean, soro ondoko pagoaren azpian
uzten du bere semea. Zu egon zaitetz adi eta ugazaba lanean hasi
eta laster eraman ezazu umetxoa basorantz. Umea hartu orduko has
zaitetz alarauka nire ugazaba konturatzeko zer gertatzen den. Zuk
umea hartu bezain laster, ni zure atzetik joango naiz eta harrapatu
gingo zaitut. Nik eraso ondoren, zu beldurtu egingo zara eta ume-
txoa bertan behera utziko duzu. Nik, orduan, umetxoa hartu eta uga-
zabari emango diot. Egunen batean ordainduko dizut mesede hau.

Esan eta egin. Horrelaxe gertatu zen. Ugazabak, munduko txakurrik
onena zela ikustean, pozik eraman zuen berriro bere etxera eta jaten
eman zion.




Egun gutxi barru ugazabaren alaba ezkontzen zen herrian. Eguraldi ona egiten zuenez, etxe ondoko landan bazkalduko zuten.

Elizan zeuden bitartean txakurra otsoaren bila joan zen eta, jendea elizatik irten baino lehen, mahai azpian ezkutatu zuen. Txakurrak otsoari nahi zuen beste eta gehiago eman zion jaten eta edaten.

Jendea, bazkaldu eta gero, dantzan hasi zen. Otsoa ere, jendea bezain pozik zegoenez, alaruka hasi zen. Bat-batean musika isildu egin zen eta jendeak dantza egiteari utzi egin zion. Batzuek, harrika egin zioten otsoari eta beste batzuek, aulkiak jaurti zizkioten. Txakurra, otsoa arriskuan zegoela ikusirik, otsoaren aurrez aurre jarri zen ausikika, haginak erakutsiz, garratz.

Txakurraren ugazaba, egoera larri hura ikusirik, estutu egin zen eta jendeari baztertzeko esan zion, txakurrak bazekiela otsoari aurka egiten eta. Jendea baztertu bitartean txakurrak otsoari basorantz ihes egiteko esan zion berak babestuko zuela jendearengandik eta. Otsoa, buztana hanka artean zuela, basorantz abiatu zen eta han ezkutatu.





—Jaten eta edaten ez ezik bizia ere eman dizut —esan zion txakurak otsoari.

—Bai, zorretan nago. Ez zaitut ahaztuko. Ezertarako behar banauzu hemen inguruan izango nauzu. Badakizu non bizi naizen eta etorri. Nahi duzun arte —erantzun zion otsoak.

“Auuuuuuuuuuuuuu...!” luze bat entzun zen txakurra basotik irten bezain laster.

Txakurra buztanari batera eta bestera eraginez, harro-harro, zeterren ugazabaren etxerantz. Eta hau gertatu zenetik, ugazaba eta txakurra, batera bizi izan ziren, bata bestea baino zorientsuago.»

Zirik bukatu bezain laster, Marari bi negar-angulu irten zitzaizkion. Eskerrak eman zizkion Ziriri ikusi ezin izan zuen pelikula kontatzeagatik.





Matematika poesia bihurtu

Ziri eta Mara aspaldian elkarren ondoan daude ikasgelan. Ikasle onak dira, baina ez dute beti irakasleak dioena egiten. Ikasteko erraztasun handia dute, hori ezin da ukatu.

Behin, astearte batean, irakaslea bertsoak eta bertsogintza azaltzen ari zela, Ziri eta Mara matematikako ariketaren bati begira zeuden. Irakaslea eurenganaino hurbildu zen eta biderketak ea berdin zeuzkaten begira zebiltzan.


—Betikoa! Lehenengo eskolorduan hurrengo ordukoari begira! —zioen irakasleak.

Irakaslea haserre jarri zen eta zigor pedagogikoa jarri nahi izan zien.

—Ostiralean bertsoz erantzun beharko didazue aste honetarako geneukan taula —esan zien biei irakasleak.

Biak geratu ziren burumakur, ondokoan ezpainetan, oster, irribarre maltzurra ikus zitekeen.

Ostiralean irakasleak bere mehatxua bete egin zuen. Lehenengo Ziriri esan zion zutik jartzeko eta galdezka hasi zen. Irakasleak galdetu eta Zirik erantzun egin behar zion.





Irakasleak:—Zenbat da zortzi bider zero?

Zirik: —Orain ez dakit eta esango dizut gero.

Irakasleak:—Ziri, taula galdezka ari naiz!

Zirik: —Bertsotan erantzuteko esan zenigun herenegun eta niri haxe bururatu zait, ez dut ondo egin ala?

Irakasleak:—Ez, ez. Baina horrelaxe jarraitu beharko duzu.

Zirik: —Baietz uste dut —erantzun zion Zirik.

Eta irakasleak jarraitu egin zuen:

Irakasleak:—Zenbat da zortzi bider bat?

Zirik: —Ikasgelan baino hobeto hemendik at.

Irakasleak:—Zortzi bider bi?

Zirik: —Ikasteko ia beti nagi.

Irakasleak:—Zortzi bider hiru?

Zirik: —Zu nagusi eta ni kriadu.

Irakasleak:—Zortzi bider lau?


Zirik: —Hau ikasteko bi gau.


Irakasleak:—Zortzi bider bost?

Zirik: —Kaleetan hainbat txakur-gorotz.

Irakasleak:—Zortzi bider sei?

Zirik: —Neu zigortu arte ez zaude lasai.





Irakasleak:—Zortzi bider zazpi?

Zirik: —Ikaslea beti irakaslearen azpi.

Irakasleak:—Zortzi bider zortzi?

Zirik: —Gaur zure aurka zero eta ortzi.

Irakasleak:—Zortzi bider bederatzi?

Zirik: —Ni zigortzeko hainbeste aitzaki.

Irakasleak:—Zortzi bider hamar?

Zirik: —Bukatu dut eta, gangar.

Ikasleen txalo-hotsak ez zuen ia azkenik izan. Orain buru-makur zegoena irakaslea zen.



—Zuk ere, Mara, gauza bera egingo zenuen, ezta? Bertsoa egin bai, baina taula...? —esan zion irakasleak.

—Ahal izan dudana egin dut —erantzun zion apal-apal.

—Bai, jakina! Ea!

Irakasleak: —Zenbat da zortzi bider zero?

Marak: —Biri bi kenduz gero.

Irakaslea harritu egin zen. «Jarraituko ote du horrela?», esan zuen bere kautan.

Irakasleak orduan: —Zenbat da zortzi bider bat?

Marak: —Bederatzira iritsi ez eta zazpitik at.

Irakasleak: —Zortzi bider bi?

Marak: —Zortzi pertsonak hamasei begi.

Irakasleak: —Zortzi bider hiru?

Marak: —Faraonek dozena bi kriadu.

Irakasleak: —Zortzi bider lau?

Marak: —Ummm... Ezin dut asma(t)u. Baina, izan liteke hamasei egun eta beste horrenbeste gau?

Irakasleak: —Zortzi bider bost?



Marak: —Ummm...Ummm...! Ez dakit, baina bost bider zortzi, hogei lore eta beste horrenbeste lorontzi.

Irakasleak: —Zortzi bider sei?

Marak: —Larunbat eta igandeko orduak emango ditut lasai.

Irakasleak: —Zortzi bider zazpi?

Marak: —5 eta 6 elkarren ondoan, eta ez dago gaizki.

Irakasleak: —Zortzi bider zortzi?

Marak: —32ri beste horrenbeste erantsi.


Irakasleak: —Zortzi bider bederatzia.

Marak: —36 jantzi-erantzi.

Irakasleak: —Zortzi bider hamar?

Marak: —Laurogei urte, eta oraindik su ta gar.

Bukatu baino ez, txirrinak jo zuen. Irakasleak hartu zuen lasaialdiak ez zuen gutxi balio izan! Ez zekien zer esan. Berriz ere txalo-hots luzea entzuzen ikasgelan. Orain urte asko jazo bazen ere, oraindik gogoan du irakasleak.





Ikasturteari agurra

Zirik eta Marak, Ikerrek eta beste batzuek, ikasturteari amaiera emateko zer-bait egitea pentsatu zuten. Pentsatu eta antolatu ere bai. Sanisidroetan-edo hasi ziren San Juan bezperan zer egin edo zer ez egin pentsatzen. Taldeak egin zituzten eta bakoitzak zeregin bat hartu zuen: talde batek programa edo egitaraua eratuko zuen; beste batek, ekintza bakoitza zer ordutan egingo zen, hurrengo batek ikastetxeko ikasleen gurasoei eskutitzak bidaliko zizkien... Denek zeukaten lana. Eta prest zeuden horretarako.

Errotuladoreak hartu eta lanean hasi ziren. Honako programa antolatu zuten:

IKASTURTEA, AGUR!

Ekainak 23

| | |
|-----------|---|
| 10:00etan | Futbol - Saskibaloia - Xake - Tenis partidak. |
| 12:00etan | Eskulan, argazki eta margo lehiaketa. |
| 13:30ean | Bazkaria |
| 16:00etan | Zaku-lasterketa |
| 17:00etan | Tortilla txapelketa |
| 18:30ean | Txotxongiloak |
| 20:30ean | San Juan sua eta agurra |





Ikasle, irakasle, guraso eta ezagun ugari bildu zen ikastetxean. Jendea aurrera, atzera, gora, behera, batera eta bestera gelditu gabe zebilen.

Goizeko jokoak serioak izan baziren ere, arratsaldekoetan barre ugari egin behar izan zuten, bai ikusleek bai parte-hartzaileek.

Arratsaldeko lauretan zen zaku-lasterketa. Lehenengo lasterketan zortzi mutilek hartuko zuten parte eta bigarrenean, zortzi neskek. Finala, mutilen arteko lehenengo laurak eta nesken arteko lehenengo laurak jokatu zuten.

Finala hasteko bost minutu falta zirela, prest zeuden irteeran zazpi lasterkari. Oraindik Lander falta zen, zortzigarrena. Lander, horretan, onena zen. Minutu bat falta zela agertu zen zakua eskuan zuela. Etxera joan zen bazkaltzera eguerdian eta berandu egin zitzaion. Hasi zen lasterketa. Ikusleek etengabe ari ziren Ziiiiri! Ziiiiri!; Lannnder!, Lannnder!; Samiiiiira!, Samiiiiira!; Idooia!, Idooia!... bakoitzak begiko zuena animatzen.

Lander izango zen, guztien ustez, irabazle. Eta lehenengo zihoan. Baina, sarri gertatzen da ezustekoren bat eta hemen ere gertatu zen. Bigarren zihoana, Samira, ondo-ondoan zihoan eta jausi egin zen. Eta, jausi zenean, Lander jo zuen eta hau ere ahuspez erori zen.





Baina txarrena ez zen izan jaustea. Ikustekoa zen Landerren itxura zutitu eta zakutik irten zenean! Praka laburren poltsikoetatik arrautza zuringoa eta gorringoa dariola zegoen. Begira zeudenek ezin zuten sinestu aurrean zutena.

«Zer gertatu ote zaio Landerri?», zioten.

Landerrek, arratsaldean tortilla egiteko, amaren isilean, sei arrautza zekar-tzan poltsikoetan. Berandu iritsi zenez lasterketara, arrautza eta guzti sartu zen zakuan. Lotsaria halakoa, Landerrentzat!

Joko eta lehiaketa guztiak amaitu ondoren San Juan sua egin zuten. Saltoka, txaloka, abestuz... eman zuten iluntzea. Talde bat, ohiturari eutsiz, galtzu eskutada eskuetan zuela piztuta, inguruko landei biraka hasi zen noizean behin ondoko hauek abestuz:



*San Juan bagilean,
denbora ederrean.
Artoak eta gariak gorde,
sugeak eta zapoak erre,
San Juan bezpera gaue.*

*Gaur dela, bihar dela Doni eguna,
etzi San Juan biharamuna.
Gure soloan lapurrik ez,
badagoz ere, erre beitez.*

Hurrengo egunean, San Juan egunean, gauza gehiago jakin zuen jendeak. Irakasleren bati hagin bat apurtu omen zitzaion, hartu zuen tortilla zatian harri-kozkor bat zegoelako. Besteren bat ospitaleko larrialdietara eraman behar izan omen zuten su gaintetik salto egitean, erreduraren bat izan zuelako...



Hau guztia San Juan haritza edo lizarra ikastetxeko atean jartzeko prestatu bitartean jakin zuten.


Lehenago, abestiak dioenez, haritz edo lizar adarrari zatitxo bat kentzen zitzaion eta, ziri bat eginez, adarrean sartzen zen, gurutze bat eginez. Gurutze horretan arto landare bat, galburu bat eta loreren bat edo beste jartzen zen, urte osoan gurutze horretan jartzen zenaren faltarik ez edukitzeko. Ondoren etxeko atean josten zen hurrengo urtera arte. Eta hurrengo urteko suan erre egiten zen.


Ziri eta Mara, Iker, Samira eta beste gelakide batzuk ere herriko parkeko txoko batean geratu ziren San Juan sua bukatu zenean. Ogitarteko bana jan zuten eta mustio botila bat eta ur botila bat hustu zituzten, suaren beroak egarri handia eman baitziren.

Ikasturtea zein ondo joan zitzaien gogoratzen aritu ziren. Gertakizun xeblebre guztiak burura ekarri zituzten eta denen hizpide eta barre egiteko motibo bihurtu ziren. Landerren arrautza puskatzea benetan barregarria suertatu zen. Lagunek ere ederki jo zioten adarra.

—Etxetik ekarritako arrautzak baino ez zaizkizu puskatu, eta eskerrak horri! Besteak puskatu balitzaizkizu... orduan izango ziren komeriak! —esan zion Gaizkak.

Denek egin zuten barre eta Landerrek lotsa pixka bat sentitu zuen, baina, azkenean, berak ere besteek bezalaxe barre egin zuen, lasai.





Baina, batez ere, Mararen prakak gerritik jaistearena erabili zuten ahotan eta Marak bere buruari barre egin eta barkamena eskatu zion Ziriri errurik gabe eman zion zaplaztekoagatik.

—Zaplazteko eta guzti ederki pasatu genuen, Mara —erantzun zion Zirik.

Mara lasaiago geratu zen orduan.

Eta lagun guztiek oporretarako planak egin zituzten. Elkarri postalak bidaltzekotan geratu ziren.

Batez ere Marari, opor garaian betetzen baitzituen bederatzi urte.

Gero denak euren etxeetara joan ziren eta amets zoriontsuak egin zituzten. Zirik eta Marak antzeko

ametsa egin zuten, telepatia kontua nonbait. Mara damututa zegoen Ziriri aurpegian jo izanaz eta orain Ziriren aurpegia bere esku leunez laztantzen zuela amets egin zuen, lehen egindako mina gozatu nahian-edo. Eta Zirik Mararen esku epelak sentitu zituen bere aurpegian ametsetan eta laztan haiek jasotzekotan beste mila zaplazteko hartzeko ere prest legokeela pentsatu zuen.

Ibaizabal argitaletxeak honako hau gogorarazten dizue irakasleoi: azken hiru orrialde hauetan planteaturiko ariketak ez dituztela ikasleek liburuan bertan egin behar.

Irakurtzen hasi baino lehen:

1

Liburuaren titulua irakurri.

- Zeri buruz izan daitekeela iruditzen zaizu?
- Nortzuk iruditzen zaizu izan daitezkeela liburuaren protagonistak?

2

Liburuaren barruko marrazkiak ikusi.

- Zein dira gehien agertzen diren pertsonaiak?

3

Aurkibidea irakurri. Ondoren erantzun:

- Liburua dibertigarria izango dela iruditzen zaizu?
- Liburua beldurrezkoa izango dela iruditzen zaizu?

4

Nor da liburu honen egilea?

5

Nor da liburu honen marrazkilaria?

6

Zenbat orrialde ditu liburuak?

7

Liburu hau bilduma baten barruan kokatuta dago. Zein da bildumaren izena?

Liburuaren irakurketaren erdi aldera:

1

Hurrengo pertsonaia hauek badute beraiei ez dagokien ezaugarri bat. Zein da?



Liburua irakurri ondoren:

- 1 Liburu honetan Ziri, Mara eta bere gelakideak ezagutu ditugu. Egin zure marrazkia eta ondoan gehien gustatu zaizkizun pertsonaienak.
- 2 Zure lagunen bati liburu honetako pasarteren bat gomendatu beharko bazenio, zein aukeratuko zenuke? Zergatik?
- 3 Liburu honetako ikasleek eskolan hainbat ekintza burutzen dituzte.
 - Zein da antolatu duten ekintzetatik gehien gustatu zaizuna?
 - Ikasturtean zehar antolatzen dituzuen ekintzetatik, zein da gehien gustatzen zaizuna?
 - Zein da zure eskolako lagunekin egitea gustatuko litzaizukeen ekintza?
- 4 Ikasturteari amaiera emateko Zirik, Marak eta bere gelakideek egun berezia antolatu dute.
 - Programa horretako ekintzetako batean parte hartu beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke?
 - Zuk zelan ospatzen duzu ikasturtearen amaiera?
- 5 Nolakoa esango zenuke izan dela Ziri eta Mararen ikasturtea?

| | | |
|--------------------------------------|----------------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> aspergarria | <input type="checkbox"/> alaia | <input type="checkbox"/> gogorra |
| <input type="checkbox"/> luzea | <input type="checkbox"/> tristea | <input type="checkbox"/> dibertigarria |
- 6 Liburu honetako protagonistak Ziri eta Mara dira, baina Joseba eta Lorea dira beren benetako izenak. Zergatik deitzen diete horrela?



HONTZAREN ULUA

irakurgai bilduma



Ziri eta Mara ✕

8 urtetik aurrerakoentzat

Gaztetxo, inoiz entzun duzu “geraka” hitza? Inoiz ere ez? Zabaldu liburu hau eta hasi irakurtzen. Irakurri ahala asmatuko duzu zer esan nahi duen. Ea, zeure kontura, liburua amaitu baino lehen asmatzen duzun.

Nik zera diotsut: Zirik eta Marak bikote “geraka” osatzen dute. Beste guztia zeure esku utziko dut.

Jakin-minez bazaude, hasi liburua irakurtzen eta ezagutu bikote “geraka” paregabe hau!
Hasiak egina dirudi, eginak urregorri.



IBAIZABAL

